
NO PLEASURE
Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA

NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA



FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza eta koreografia: Iker Karrera **Dantzariak:** Pablo Costas, Carla Diego, Belén Leroux, César Louzán, Raymond Naval eta Yadira Rodríguez **Kanpo ikuspuntua:** Fernando Lázaro **Argiztapen diseinua:** Alberto D. Centeno A.E.C. **Argiztapen teknikoa:** Paco Pascual **Jantzi diseinatzailea eta estilismo arduraduna:** Laura Cortés **Jostuna:** Natalia Capillas **Atrezzo diseinua:** Matias Zanotti **Produkzioa:** Iker Karrera eta Danza180 **Banaketa:** La Neta Escena **Argazkigintza:** Alberto D. Centeno A.E.C. eta Jacobo Medrano.

Iraupena: 55min

NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA



SINOPSIA

Anhedonia plazerra sentitzeko ezintasuna da, noizbait gustatu zaizkizun gauzekiko interes eta gozamen galera. Ezer axola ez balitzaizu bezala, ezerk piztu ezin zaituelarik. Zer egin beraz, ezer sentizten ez duzunean?

Ideia honekin oinarrian, Iker Karrera koreografo euskaldunak haren pieza berriena sortu du, *No Pleasure*. Bere lanetan ohikoa den hizkuntza-koreografikoa azaleratzen da, dantza genero ugariren nahasketan oinarritzen delarik nagusiki. Horrela, entretenimendua, bide berrien ezagutza eta publiko berriekin konexioa sustatzen dira.

NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA



IKER KARRERA KONPAINIAREN INGURUAN

2016an, Karrerak norberaren lehenengo konpainia kaleratu zuen haren lehenengo pieza laburraren estreinuaz, *#7fm*, mundu osoan zehar 50 emanaldi baino gehiago antolatzera bultzatu zuena. *#7fm* entzutetsuak lehen saria eskuratu zuen III DanzaXtrema txapelketan, Ikusleen Saria irabazi zuen IV Tetuango Distrituko lehiaketan, finalera iritsi zen Madrilgo 30º Sariketa Koreografikoan, eta ACieloAbierto sareko zenbait jaialditan izan zen antolatua, besteak beste. Nazioartean, pieza hau bitan oholtzaratu zen New Yorken, lehenengo aldiz White Wave Dance Festival-ean Brooklynen, eta azkenik Battery Dance Festival-ean Manhattanen. Honekin batera, *#7fm*-k Pariseko Palais de Glaces, Niza, Brusela, edota Hereford bezalako lekuak bisitatu ditu.

2017an Ikerrek haren lehenego produkzio luzea kaleratu zuen, *Las Otras Piezas*, Fernando Lázaroren laguntzaz koreografiatu eta zuzenduta. Madrilen 4 alditan egon zen ikusgai eta Danza A Escena deritzon zirkuitoan sartzeko aukeratua izan zen.

Bi hilabeteren buruan, jada 2018an, Karrera berritutako *Fama ¡a bailar!* telesailaren parte izan zen, lehenengo edizioan irakasle izan zelarik eta bigarrenean zuzendari.

No Pleasure dugu bere lehen lana hemendik aurrera.

NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA



IKER KARRERA

Zuzendaritza eta koreografia

Hondarribian jaoia, oso gaztetatik hasi zen Iker Karrera jazz eta hip-hop klaseak jasotzen. 18 urterekin Madridera joan zen bizitzera, eta Ikusentzunezko Komunikazioan lizentziatzeaz gain, bidaiari ekin zion haren formazioa osatzeko ballet eta dantza garaikidea landuz.

Dantzari gisa, Parisen aritu da Celine Dion bezalako artistekin batera dantzan, bideo-musikaletan edota kontzertuetan. Espainia mailan, proiektu asko bideratu ditu, esaterako, Nuevo Ballet Español-aren parte izan zen, eta *Titanium* izeneko eta Rojas y Rodriguezek zuzendutako ikuskizunarekin mundu osoan zehar aritu ziren bidaian eta ezagutzan.

Koreografo gisa, haren *#7fm* piezak nazioan bertan eta nazioartean askotariko sariak jaso ditu eta publikoarengandik onespen eta iritzi positiboak. Aipatutako hau Paris, Londres eta New York bezalako hiriburu ospetsuetaraino iritsi da, baita dantza jaialdi nazionaletara ere. *Las Otras Piezas* eta *No Pleasure* dira Ikerren lan luzeenak, Madrilen arrakasta handiz estreinatuak.

Gainera, Ikerrek bideoklip edo bideo-musikal ugari koreografiatu ditu, hauen artean, Lola Indigoren *Fuerte* Iñigo Jimenezen zuzendaritzapean, edota Delaporteren *Un Jardín*. Honetaz gain, iragarki-spot desberdinetan parte hartu izan ohi du.

Irakasle gisa, 15 urte baino gehiago daramazki Ikerrek irakaskuntzan murgildurik; dantza garaikide eta jazzfunk klaseak ematen ditu egun nazioarte- mailan, Los Ángeles, NYC, Erroma, Paris, Napoles, Brusela, Praga eta Kiev bezalako hirietan, beste askoren artean. Madrilen, María de Ávila Dantza Goi-Kontserbatorioko irakasle gonbidatu izana da, baita Danza Fortea Kontserbatorio Profesional eta Madrilgo Erkidegoko Dantzari Profesionalen Elkartean ere. 2013 urtetik aurrera eta Fernando Lázarorekin batera, Ikerrek bere dantza eskola eta proiektu artisitikoa bideratzen ditu, Danza180º.

2018an, Ikerrek Movistar +-eko 0# kanalean igortzen zen *Fama ¡a bailar!* telesailaren formatu berrian parte hartu zuen, non lehenengo edizioan maisu izan zen, eta bigarrenean, aldiz, zuzendari.

Gaur egun haren dantza eskolaren kudeaketa eta betselako piezen produkzio eta antolamendua bateratzen ditu Iker Karrerak.

NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA



PABLO COSTAS


Dantzaria

Pablo Costas Costas, Vigon jaioa, Galizian, 1996ko apirilaren 30ean. Dantzarekin lehenengo kontaktua dantza kaletarrarekin izan zuen, eta horrela, haren formazioa burutu zuen jazz, dantza klasikoa, garaikidea eta akrobatikoa bateratuz.

18 urte zituela jaioterria utzi zuen prestakuntza profesionalago baten bila, hizkuntza neoklasikoagoan oinarrituta. 3 urtez, Marco Goecke, David Campos, Alexandre Kalibabchuk, Noah D. Gebler, Ivan Barreto, eta beste izen garrantzitsurekin batera aritu zen lanean.
Fama ¡a bailar! programaren ostean, bere burua merkatu laboral komertzialagoan murgildu zuen nagusiki Espainian.

2018ko MTV EMA's sari banaketan dantzatu zuen, The Squared Divison, edota Amber Rimell bezalako koreografoekin batera. Telesail nazional zein internazionaletan agerpenak egin ditu, baita artista españolentzako bideoklip ugaritan. Gainera, haren prestakuntza biribiltzeko Los Ángeles bezalako hirietara joaten da, bertan Dana Fogilaren ikasle delarik, besteak beste.

Iker Karreraren azken piezan lanean aritu da, No Pleasure, eta dantzari eta koreografo lanak ere burutzen ditu honetaz gain.



CARLA DIEGO

Dantzaria

Bartzelona jatorriz, dantza klasikoan murgiltzen da 12 urterekin. Haren prestakuntza osatzen jarraitzen du, Ohad Naharin, Hofesh Shechter, Fernando Hernando Magadan, Richard Siegal, Sharon Fridman eta beste dantzari profesionalen klase eta workshopetatik ikasiz.

Antzerki musikala landu du (Hoy no me puedo levantar, Los 40, el musical, La Bella y la Bestia) eta egun freelance dantzari gisa egiten du lan hainbat konpainiatan: LASALA (Judith Argomaniz), Poliana Lima, Iker Karrera, Cie Burn Out (Jann Gallois) eta Compagnie Lamento (Sylvère Lamote).

Txapelketa eta dantza jaialdi koreografikoetan parte hartu du Nexo(s)-ekin, plangere, Red De Cielo Abierto 2018-rako aukeratua izan zena, eta La Viva Muerte, Madrilgo 32. Txapelketa Koreografikorako aukeratua eta Choreographic Research Porgram bekaren irabazlea.

Koreografo gisa lanak egin ditu publizitate, zinema eta antzerkiaren alorretan, eta Iker Karreraren laguntzaile izan zen Fama ¡a bailar! telesailean.

Gaur egun haren karrera profesionalari ekiten dio koreografo, dantzari eta irakasle izanik.

NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA



BELÉN LEROUX

Dantzaria

Belén Leroux Sydneyen jaiotako dantzai hispano-filipinoa da, Valentzian hezitakoa eta egun Londresen kokatzen delarik.

Haren prestakuntza hip-hop, ballet, eta garaikidearekin hasi zuen Valentzian. Formazio hau maila internazionalean hedatzen joan zen New Yorken eta Los Ángelesen Dana Fogilaren eskutik, eta Londresen Danza De Kingston Univeristy-n gradu bat ikasi baitzuen.

Munduari bira eman dio Dua Lipa eta Rita Oraren mundu-mailako tourrei esker, haren kredituetan Nike, Parris Goebel, X factor Italia eta Ellie Goulding sartzen direla-eta.

2018 urtean Fama ¡a bailar! saioko lehenengo edizioan partaide izan zen, eta programan izan zuen agerepnaren ondorioz Iker Karreran azken piezan elkarlanean aritu dira, No Pleasure.



CÉSAR LOUZÁN

Dantzaria

Cesae Louzán, A Coruñan jaioa, Madrilen finkatzen da haren dantza-ikasketak Danza180º dantza eskolan burutzeko, 5 urteren buruan prestakuntza hau amaitzen duelarik eta Lab180º-ri esker koreografo ezberdinentzat lan egin duelarik.

La Cía Losdedaerentzako dantzatu zuen eta 2015ean Cía Larumbe Danza taldeko parte bilakatzen da.
2016 urtean Amaya Galeoterekin batera egiten du lan emakumearen Lego's I y II piezatan.
Ondoren, Preljocaj Balletean sartzen da, eta bertan Romeo eta Julieta eta Edurnezuri bezalako piezak dantzatzen ditu.

Haren Frantziako egnoladiaren ostean, dantzari nagusi bezala aritzen da Nova Galega de Danza eta Carmelo Segura Companhia konpaainiatan.
Orain Madrilen dago finkatuta, Voadoraren dantzari-zerrenda berriaren parte delarik Siglo mío, bestia mía produkzioan. Bitartean, dantza klaseak ematen ditu eta Jesús Rubio eta Iker Karreraren konpainietarako lan egiten du.

NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA



RAYMOND NAVAL

Dantzaria

Raymod Naval, Los Ángelesekoa, California. Oso gaztetatik hasi zuen haren dantza prestakuntza, dantza klasikoa, dantza garaikidean, jazz, eta hip-hopean zehazki, dantza eskola amerikar ugaritan. The Pulse On Tour-eko workshopetarako lortu zituen bekei esker, formatzeko gai izan zen eta Brian Friedman, Tyce Diorio eta Tessandra Chávez bezalako irakasleen laguntza jaso zuen.

Urte batzuren buruan unibertsitatean koreografia eta enpresa kudeaketa gradu bat ikasi zuen, Californiako unibertsitatean, Irvinen. Enity Contemporary Dance konpainiarekin dantzatu zuen ikasten ari zela, Marissa Osato eta Will Jonhstonen zuzendaritzapean. Beste alde batetik, Taylor Swift bezalako artistekin lan egin izan du, baita Glee edota Oscar sari banaketa bezalako ekitaldi eta telesailetan.

2015ean Madrilen jarri zen bizitzen, eta hemendik aurrera hainbat artista españolen bideklipetan lanean aritu da, eta publizitate kanpaina batzuetan parte hartu izan ohi du Espainian eta AEBn. 2018an Fama ¡A Bailar! telesaileko irakasle izan zen, Iker Karrerarekin batera.

Orain, Raymond Madriden dago finkatuta, eta Iker Karrera bezalako koreografoekin aritzen da lanean #7fm, Las Otras Piezas edota No Pleasure piezen lanketan, eta Osa + Mujikaren eskutik Kenophobia izeneko produkzio luzean ere parte hartu izan du.
Gainera, dantza garaikide eta kaletar edo urbanoko klaseak ematen ditu, hauen baitan hizkera eta forma berriak nahasten eta aurkitzen dituelarik.



YADIRA RODRÍGUEZ

Dantzaria

Dantza garaikidean graduatu zen Yadira, Danza María de Ávila Goi Kontserbatiorioan. Bestalde gradu-erdi bat burutu zuen dantza klasikoan Danza Luis de Río Kontserbatiorio Profesionalean, Kordoban.

2008tik 2010era bitarte, Andaluziako Dantza Zentruko (CAD) parte izana da, Sevillan, Fernando Hurtado, Blanca Li, eta Johan Ingerren antzerako koreografoengandik ikasi zuelarik.

Hainbat konpainia eta piezatan aritu da Yadira: Compañía Ai Do Project (Iker Arrue), Cienfuegos Danza (Yoshua Cienfuegos), Larumbe Danza (Juan Torres), Proyecto Titoyaya (Gustavo Ramirez), Marcat Dance (Mario Bermúdez), Spellbound Contemporary Ballet (Mauro Astolfi), Luna Negra Dance Theater (Gustavo Ramirez), La Veronal (Marcos Morau), Georg Reischl y Sang Jijia (Forsythe Dance Company), Fernando Magadan (NDT), eta Daniel Abreu.



LAURA CORTÉS

Jantzi diseinatzailea

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi eta estiloa eta irudien aholkularitza ikastaroa egin ondoren, LookArt estilismo enpresan hasi zen lanean, 15 urte baino gehiagoko esperientzia baitu telebistan, zineman, antzerkian eta publizitatean.

LookArt-en armairu saileko burua izan da telesail garrantzitsu askotan, hala nola Hospital Central, Los misterios de Laura, Isabel, Carlos Rey Emperador, Matadero, Brigada Costa del Sol, El Nudo; telebistako hainbat filmetan, hala nola Three Years in Paradise, Electroshock edo My Gypsy; eta estilo lana egin du Supermodelo edo Fama ¡a baile!

Bere lanarekin sutsua eta jantzi eszenikoen eta modaren zalea, antzerki proiektuetan eta ikus-entzunezkoen sektorean aktibo jarraitzen du.



FERNANDO LÁZARO

Kanpo ikuspuntua

A Coruñan jaioa, eta han hasi zituen dantza klasikoko ikasketak. Dantza Klasikoen Irakaskuntza Profesionalean lizentziatua eta teknika modernoan / jazzean / garaikidean espezializatua.
Madrilgo UFELen Coaching eta Adimen Emozionalean lizentziatua.
Dantzari gisa esperientzia handia du antzerkian (CDN, Teatro Real, Rafael Aguliar konpainia (bakarlaria), Elia Camino konpainia, Cia. Druida. Opera eta musikal desberdinetan ere lan egiten du (Grease, Hello Dolly!, We will Rock you , lehen aktore gisa), telebistan ibilbide zabala egin du 1995-2006 bitartean programa onenetan, filmak, bideoak eta publizitatea egiten ditu.

"Pulcinella" balleta zuzendu eta koreografiatu zuen Antzoki Errealeko, "MrLee" pieza sortu zuen Danza Fortea Conservatorio Profesionalerako eta "Supra la Terra" pieza ere estreinatu zuen Veneziako Treviso antzokian (Italia). Horrez gain, Teatros del Canal eta Zarzuelako Teatroaren koreografia Jacinto Guerrero Fundazioarekin elkarlanean.

2001. urteaz geroztik, eskolak ematen ditu Madrilgo dantza eskola garrantzitsuetan, eta tailer modernoak / garaikideak ematen ditu Espainia osoan, baita nazioarteko ikastaroetan ere (Italia, Portugal, Txile, Mexiko, Errusia).

4 urtez Arte Eszenikoen Ikasketen Burua izan zen Scaena Carmen Roche-n (Madril). 2 pertsonentzako MDCko (Madril) Dantza Modernoko Profesionalen Programako Koordinatzailea da.

Gaur egun, Danza180º-ko zuzendarietako bat da.



ALBERTO D. CENTENO

Argiztapen diseinua

Alberto D. Centeno (AEC) Espainiako zinemagilea da.

Malagan jaio zen 1979an. Argazkilaritza Teknikoan lizentziatu zen (Malaga 2005) eta geroago Kataluniako Zinema eta Ikus-entzunezkoen Kataluniako Goi Mailako Eskolan (Bartzelona 2009) joan zen.

Zinema arlo eta estilo guztietan esperientzia zabala du eta munduko profesional onenekin lan egin du.

Espainiaz gain, Albertok Estatu Batuetan, Mali, Txile, Panama, Argentina, Estonia, Portugal, Kuwait, Vietnam ... lan egin du.
Bere esperientzia zabalari esker, tiro egiteko edozein arazori azkar egokitzen zaio, beti ere emaitzarik onenak emanez.

Zinematografo gisa, lantzen dituen proiektu guztietan parte hartzen du eta zuzendariak pantailan begiak erakartzen ahalegintzen da ondoen kontrolatzen duen hizkuntza, argia eta kamera erabiliz. Garrantzitsuena istorioa kontatzea dela jakinda, irudimena erabiltzea gustatzen zaio ezinezkoa zirudien plano hori lortzeko.

Arte eta zientzien maitalea da txikitatik, bere lanari eskainia eta etengabeko prestakuntza eta bilakaeran.



MATIAS ZANOTTI

Atrezzo diseinua

Matiasek 20 urte daramatza lanean hainbat formatutako artista, konpainia eta ikuskizunentzako jantzi eszenikoak ekoizten.

Argentinan trebatu zen antzerki eta dantzako interpretari gisa, eta horrek aurrekari adierazgarriak ematen dizkio jantzien potentzialetik ulertzeko, urteetan zehar modu esperimental eta autodidaktan garatzen duen lanbidea. 2001 eta 2014 artean bere ikuskizun bisualeko enpresa zuzentzen du, besteak beste, Porsche, Givenchy edo Movistar bezalako ekitaldietarako eta enpresetarako ikuskizunak eta jantziak diseinatzen. Ordutik, performancea moda diseinua eta arte plastikoak bateratzen dituen bere ibilbide artistikoarekin jarraitu du, nazioko eta nazioarteko konpainientzat lan eginez eta irakaskuntzarekin uztartuz, Madrilgo Carlos III Unibertsitateko hainbat proiektutan kolaboratzaile gisa.

Gaur egun antzerki, zirku eta dantza konpainientzako bere sorkuntzan ari da lanean, Vinila Bon Vismark, Asier Exteandía edo Paco León bezalako artistentzako enkarguzko diseinuak sortzen ari den bitartean.

NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA

NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA



ESTREINUA

No Pleasure 2020an estreinatu zen lehenengo aldiz, Madrilen, Mover Madrid-eko II Dantza Zikloaren atala zelarik. Estreinua Sala Cuarta Pared izeneko aretoan eman zen.

Antolatutako 3 ekitaldien sarrerak 48 orduren buruan saldu zirela-eta, laugarren emanaldi bat prestatu zuten, azken honen sarrerak ere besteenak bezain azkar saldu zirelarik.

Ikusleengandik jasotako harrera izugarria izan zen, eta dantzari eta taldekideek irrikitan daude etorkizunean *No Pleasure* berriro landu eta aurkezteko, esperientzia eta konexio hauek beste behin bizitzeko.



EKINTZA PARALELOAK

Iker Karreraren konpainiak **tailer eta workshop** anitzak eskaintzeko asmoa dauka, dantza estilo ezberdinak uztartuz dantzari guztien partaidetzan. Horrela, ekitaldia baino egun bat lehenago klase hauek antolatuko lirateke “ingurunea mugiarazteko” eta aldi berean xede publizitario batekin hurrengo eguneko emanaldiari begira.

Ikerrek, nahiz haren konpainiako dantzariek, denbora daramate klaseak prestatzen eta antolatzen. Mundu osoan barrena jarraitzaile asko dituzte, eta *Fama ¡a bailar!* saioari esker, workshop hauek dantzarien ezagutza sustatzen dute.

Aurkeztutako dantza estiloak: dantza klasikoa, garaikidea, inprobisazioa, floorwork, partnering, jazz, jazzfunk, hip-hop eta heels.

NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA



NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA



NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA




NO PLEASURE
Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA

NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA



NO PLEASURE

Zuzendaritza eta Koreografia
IKER KARRERA



Zuzendaritza:
Iker Karrera
karreraiker@gmail.com
+34 626 283 659

Produkzioa:
Eva Marcelo - La Neta Escena
eva@lanetaescena.com
+34 607 857 577